

## REM-EMBER

*Ese episodio de la imaginación al que llamamos realidad.*

Fernando Pessoa.

**S**ofa bat. Belusko ahotsa ordenagailuko bozgorailutik. Leun. *Gure zuhaitza landatu dugu, amildegi muturrean...* Gure gorputzak. Lasai. Erlaxatuta. Atzetik oratzen nau. Belarrira xurxurlatzen dit: *quizás puedas escribir sobre esto*, bere hitzak. *Tengo miedo*, nireak. Bitartean bere eskua nire sorbaldetatik aurrera irristatzen du, nire bularretatik behera, sabeletik behera.

Eta horrela, ipuin hau idazten hasi naiz. Eta horrela ipuin hau idazten hasi da. Bere ahoaz. Bere ahotsaz. Nire belarrira. Nire barnera. Bere eskuez. Nire gorputzean zehar. Nire barneraino. Hitz bakoitza kontu handiz hautatuz, lerro bakoitza zehaztasun handiz sortuz, idazten ari garen istorio honetako paragrafo bakoitza mimoz aukeratuz.

Atzamarrarekin mihia ukitzen dit. Bustiz. Eta ur horren laguntzaz nire gorputzean zehar irristatzen du. Ur horren laguntzaz bilatzen du, deskurbitzen du, ezagutzen du. Ezagutarazten dit. Sortzen du. Sortzen dugu. Astiro, presarik gabe. Mugimendu bakoitza sentituz, hotzikara bakoitza, dardara bakoitza. Nire gorputzak eskatzen duen erritmoa markatzen duen koma bakoitza deskubrituz. Idatziz. Nire gorputzak *desira* hitza sortzeko behar dituen kontsonante eta bokal guztiak aurkituz. Gure testuari intentsitatea ematen dion azentu bakoitza topatuz.

Azentu bakoitza. Bere eskuari indarra ematen diona. Bere eskua zorotzen duena. Zuzen idazten uzten ez diona. Uhin ezegonkorrak sortzen dizkiona. Hitzak zirriborro bihurtzen dituen. Zirriborro ulertezinak, baina indarrez markatuak, nire gorputzeko ertz bakoitzean trazu ezabaezinak utziz, idazten ari garen orri honen margen bakoitza betez. Irreal. Erreal.

*La ilusión es lo más real que existe*, entzuten dut behin eta berriz nire buruan. Esaldi horrek batu gintuen. Esaldi horrek banatu gintuen. Kasualitateak batu gintuen. Kasualitateak erabaki zuen biok literatura master hartan bukatzea. Kasualitateak erabaki zuen elkarrekin lan hori egin behar izatea. *La ilusión: el camino para crear la realidad*. Kasualitateak. Kausalitateak. Eta orain hemen ikusten dut, nire alboan, nire gainean. *I've got you under my skin.*

Duela urtebete entzun nuen lehen aldiz bere ahotsa. Nire atzean. Klasean sartu zenean. Berandu, beti bezala. *Lo siento, me costó encontrar el aula*. Bere hitz egiteko doinuak dantzan jarri zuen nire barnea. Abestuz hitz egiten zuen. Nongoa izango zen? Beti izan naiz txarra hizkerak desberdintzeko, baina argi zegoen hegoameriketako zela. Banekien Argentinakoa ez zela, Uruguaykoa ere ez. Hizkera horiek oso entzunak nituen eta berea ez zitzaidan ezaguna egiten. Laster jakin nuen Txile zela bere jaioterria.

Duela urtebete entzun nuen lehen aldiz bere ahotsa eta orain hemen ikusten dut, nirekin ohe gainean. Bere beroa sentitzen dut, bere laztanek zeharkatzen didate gorputza. *I've got you under my skin*.

Musika leuna bukatu da jada, gure turbinen beroak elektrizitate bihurtu ditu musikak sortzen zituen olatu leunak. Musika belarrietatik sartzen zait eta burmuina kolpeatzen dit, espasmoak sortuz. *No lo dejes apagar y grita fuego*. Zuzen begiratzen diot begietara, ondoren makurtu eta nire mihia goitik behera mugitzen hasten naiz, definitutako erritmorik gabe. Nire gorputzak eskatzen didan erritmoari jarraiki. Bere gorputzak eskatzen didan erritmoari jarraiki. Gure gorputzek eskatzen diguten erritmoari jarraiki. Kolpeatzen gaituen elektrizitate horrek bultzaturik.

Kalanbreak sortzen dizkit elektrizitate horrek. Min ematen dit. Baita sekula sentitutako plazerik handiena ere. Burua bere gorputzean murgiltzeak sortzen didan aire falta areagotzen dit. Itotzen nau. Arnasteko airea sortzen dit.

Elektrizitate horrek etengabeko mugimenduan dagoen amildegitik ibiltzera eramaten nau, marra bakoitza zirriborro bihurtzen dituen amildegitik. Eta beldurtzen nau. Eta bere begietara begiratzeko beldurra kentzen dit. Inon fokatzen ez diren begi ilun horietara begiratzeko beldurra kentzen dit. Sortu dugun espazio berri horretara zuzentzen diren begietara begiratzeko beldurra kentzen dit. Espazioa. Ezereza. Eta dena. Gorputz lausoak, abstraktoak. Gorputz errealak.

Eta leherketa ikusi dut bere begietan. Zure gorputzaren azken mugimenduak. Ekaitza. Hutsa. Eta betetasunik handiena. Pausa. Baina ez bakea. Ipuin honek ez baitu amaiera puntua bilatzen. Ez du amaiera ez den amaiera ezti hori bilatzen. Ez du amildegitik urrun mantentzen den eta haratago dagonena ezagutzen ez duen amaiera hori bilatzen.

*Beldur naiz, inoiz ez nuen halakorik sentitu emakume batengatik*. Orain, begiak zabalik ditudala, esna nagoela, jada hemen ez zaudela, esaldi hori dut buruan, egun hartan esan nizuna eta begiak ixten ditudan uneoro gogoratzen dudana. Eta barre egiteko gogoak ditut. Zu gogor besarkatzeko eta gorputz osoa nire ezpainez

zeharkatzeko. Aldi berean hain ezaguna eta ezezaguna den gorputz hori. Mobila hartu eta zure mezu bat irakurri dut: *hoy soñé contigo y reviví esa primera noche...*

Begiak itxi eta berriz bilatu zaitut. Nire ezpainak zuretara hurbiltzeko. Eta hiru muxu emateko. Nire airea zurearekin nahastuz. Hiru muxu, ez bat. Hiru puntu, ez bat. Jarraipena. *Bizitza* izena duen amildegi honetatik elkarrekin ibiltzera gonbidatuz...

**S**ofa batean gertatu zen. Bere etxean. Lehen aldiz ikusi nuenetik banekien zerbait gertatuko zela gure artean. Beti izan dut intuizio ona gauza hauetarako. Idurre ezagutu nuenean ere antzeko zerbait gertatu zen. Beno, egia esan, Idurrerena pixka bat desberdina izan zen; izan ere, bera ezagutu aurretik jada banuen bere irudia buruan. Harrigarria dirudi, baina hala da. Behin Txilen Erasmusen zeuden lagun batzuekin porro batzuk erretzen ari ginela Eneritzek esan zidan Idurre izeneko lagun bat zuela, behin emakumeen eskubideen aldeko ekintza baterako Gasteizko Andre Mari Zuria plaza erdian biluzik agertu zena, film paperez estalirik, emakumeak sarri haragi puxka bezala ikusiak direla salatzen. Grazia egin zidan horrek. Eta Idurre izena gustatu zitzaidan. Erdi txantxetan klariona bat hartu eta horman aurpegi bat marraztu nuen. *Hemen dugu Idurre, nire neskalaguna*, esan nien. *Joe Ana, de puta madre egin duzu, jada ezagutzen duzula dirudi*. Eta barre egin genuen.

Baina bi hilabete geroago Euskal Herrira bizitzera etorri nintzenean eta Idurre famatua ezagutzean zur eta lur geratu nintzen. Eneritzek arrazoia zuen. Nire buruan irudikatu nuen emakume horren berdin-berdina zen. Eta une hartan Idurre maite nuela konturatu nintzen. Gau hartan bertan enroilatu ginen eta elkarrekin egon ginen sei hilabetez. Ez dut horrekin luzatu nahi, kontaktu nahi dudan istoriorako ez baitu interesik, baina gauza da gure artekoa pixkanaka okertuz joan zela eta azkenean ohartu ginela gure artekoak ez zuela etorkizunik. Beraz, bakoitzak bere bidea egitea erabaki zuen.

Eta hilabete batzuk beranduago Haizea ezagutu nuen. Literatura masterra egiten ari nintzela. Sensibilidade berezia zuen testuak aztertzerako orduan. Isilik egoten zen klasean. Ez zuen askorik parte hartzen. Baina aurkezpenak egin behar zituenean harrিতa uzten gintuen. Testuetatik gainontzeko ikasleok ikusten ez genituen ideiak ateratzeko gai zen, pertsonaien buruan sartu eta euren psikologia ulertzeko. Gero jakin nuen harreman pertsonaletan ere oso ondo egiten duela hori. Gai da hitzekin esaten ez duzuna interpretatu eta horren arabera jarduteko.

Egun hartan ere jakin zuen nik zerbait egin nahi nuela. Nabaritu zuen bere etxeko sofa hartan lehiaketa baterako idatzi behar zuen ipuin erotiko horri buruz hitz egiten hasi zenean bere gainera botatzeko gogoak nituela. Baina urduri begiratzen zidan. Argi zegoen sekula ez zela emakume batekin oheratu. Bere begiek argi erakusten zuten hori. Baina gogoak somatzen nizkion. Ez dut uste kasualitatea izan zenik nirekin gai hori atera izana. Beraz, ez nuen zalantzarik izan eta eskua irristatzen hasi nintzen bere gorputzean zehar. *Tengo miedo...*

Behin eta berriz nire buruan irudikatu nuen gorputz hori eskuez zeharkatzeko irrikitan nengoen, baina banekien astiro joan behar nintzela, gau osoa genuela zain. Eta hala egin nuen. Bere atzean etzanda nengoen eta atzetik oratu nion, sorbaldetatik behera. Bere dardara txikiak nabaritzen nituen. Oilo-ipurdia azalean, eskuaz bularrak laztantzen nizkiola. Borobilak eginez laztantzen nion, suabe. Eta pixkanaka gerrira eramanez nituen. Orduan buelta eman zuen, bere bularrak nire ahoaren parean jarritz. Gora begira geratu zen. Lotsa ematen zion ni begiratzea. Beldurra.

Nik burua bere bular artean sartu eta gerria laztantzen hasi nintzaion, atzamar lodiarekin aurreko atala, pubis gaineko zonaldea eta besteekin atzeko atala ukituz. Astiro. Atzamarrak leun murgilduz. Pixkanaka gorputza bortitzago mugitzen hasten zen bitartean. Orduan eskuez burua hartu eta zuzen begiratu zenidan. Gosez. Eta bere mihiaz nire gorputza zeharkatzen hasi zen. Goitik behera. Ez nuen halakorik espero. Ziurtasunez mugitzen zen, ziurtasunez ukitzen ninduen, ziurtasunez mihazkatzen ninduen. Bazekien non ukitu, nola ukitu, zein momentutan. Eta horrek zorotzen ninduen. Lehertu arte.

Oraindik ere ezin dut burutik kendu egun hura, baita elkarrekin egon ginen beste guztiak ere. Oraindik ere lokartu eta izerditan esnatzen naiz. Eta bustita. Berarekin amestu ostean. Nahiz eta itsasoaren bestaldean egon. Oraindik ere begiak itxi eta bere irudia ikusten dut. Eta orain ere begiak itxi eta Haizea ikusten dut nire gainean, bere mihiaz nire sabela mihazkatzen, beherago. Urez nire gorputza marrazten egongo balitz bezala. Eta begiak itxi eta bere irudia imaginatuz gorputza lehertu egiten zait, elektrizitatea sentitzeko gai naiz, nire hankartean kalanbre goxoa sentitzeko. Bizitzeko.

**O**spitale psikiatriko bat. Bigarren solairua. 214. Gela. Neska bat. Begirada lausoturik. Ez da irudiak zehaztasunez ikusteko gai, koadernoaren aurrean idazten egoteak begiak nekatu dizkio. Eskuaz bere burua laztantzeak nekaturik utzi du bere

gorputza. Leherketak. Kalanbreek. Plazerak. Ohearen alboan paper batzuk daude. Letra ezberdinak. Tamaina ezberdinekoak. Hasieran, letra handiagoz hiru hitz. Agian bere izena eta bi abizenak. Edo agian ez. Ez da hitz horiek irakurtzeko gai. Haizea dela sinesten du askotan, Euskal Herrian bizi dela. Beste askotan Ana dela, eta Txilen dagoela. Baina ez daki argi bata edo bestea den. Edo biak. Edo bat ere ez. Ez daki begiak ixten dituen uneoro ikusten dituen dituen irudiak benetazkoak diren. Gertatzen zaizkion. Gertatu zaizkion. Edo gertatuko zaizkion.

Ospitale bat. Bigarren solairua. 214. Gela. Neska bat. Esku bat. Boligrafo bat. Koaderno bat. Ipuin bat.